


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,3 igo dira 2022ko otsailean

Urte arteko terminoetan, 2022ko otsailean 2021ekoaren aldean, kostuak % 7,7 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,3 igo da 2022ko otsailean, aurreko hilarekiko. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2022ko otsaila, 2021eko otsailarekin alderatuta), kostuak % 7,7 igo dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 0,4 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 0,2. 2021eko otsailaren aldean, prezioak % 7,3 goititu dira Etxegintzan eta % 9,2 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2022ko urtarrila), **lehengaien** kostuak % 0,4 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, ordea, berean mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kostuak % 8,3 egin du gora, eta eskulanarenak % 5,8.

Etxegintzaren sektoreak % 0,5eko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilarenean % 0,2koa izan da igoera. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 7,8 hazi dira, eta Obra Zibilekoak % 10,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	115,7	0,3	7,7
Eraikinak	115,6	0,4	7,3
Obra zibila	116,3	0,2	9,2
Lehengaiak	115,4	0,4	8,3
Eraikinak	115,2	0,5	7,8
Obra zibila	116,2	0,2	10,3
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Martxoaren 28a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioei doakienez, 2022ko otsailean, 2021ekoaren aldean, hauek izan dituzte igoserarik handienak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 52,3 gora), *Petrolioia fintzea* (% 39,7) eta *Metalurgia* (% 28,5). Prezioetan hazkunderik apalenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 1,8ko igoera) eta *Material elektrikoa* (% 4,4koa).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Otsaila 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	1,8
Zuraren eta kortsaren industria	20,1
Petrolioia fintzea	39,7
Industria kimikoa	21,9
Kautxua eta plastikoa	6,8
Produktu mineral ez-metalezkoak	8,4
Metalgintza	28,5
Metalezko artikulua	9,7
Material elektronikoa	7,3
Material elektrikoa	4,4
Makineriaren fabrikazioa	6,1
Altzarigintza	4,5
Energia elektrikoa eta gasa	52,3

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Martxoaren 28a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62